

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, SANTURTZIKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2016.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den otsailaren 21ean Santurtziko Udalaren eta bere tokiko lau erakunde autonomoen (Kiroletako Udal Institutua, Santurtziko Udal Euskaltegia, Serantes Kultur Aretoa eta Begoñako Ama Egoitza) ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2016ko ekitaldikoa.

2016ko ekitaldiko **Urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz kontularitzako zenbait doiketa azaleratu diren, Udalaren Diruzaintza Geldikina 5,8 milioi euroren zenbatekoan murriztuko luketenak, aldeak dauden udalaren Egoeraren Balantzeko Ibilgetu garbiaren eta onartutako ondasun-zerrendaren artean eta ezin ondoriorik atera izan da toki erakunde autonomoen Egoeraren Balantzeko Ibilgetu materialaren zuzentasunari dagokionez.

HKEEk fiskalizazio-gai izan duen Kontu Orokorraren egoera finantzarioa aztertu du. Udalak 2015 eta 2016ko ekitaldietan kapitaleko gastua sortutako aurrezki garbiarekin finantzatzea lortu du, zorra birfinantzatzeak eragindako ondorio bidez eta Lurraren Udal Ondareko lursailak besterentzearekin zuzendu dena, berriz zorpetu beharrik izan gabe; alabaina, kreditu polizak kontratatu dira diruzaintzako beharizanei aurre egiteko.

Halaber, txostenak ondorioztatu du Udalaren kontu-hartzailetzak jaulkitako txostenaren arabera, 2016an aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela.

Bai Udalak bai tokiko bere erakunde autonomoek zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian haien ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz akatsak azaleratu diren Langileen atalean eta Administrazioako Kontratazio atalean; izan ere, Udalak langile baten ez-legezko lagapen egoera aitortu du, lan-kontratu mugagabe ez finkoko langile izaera hartu zuena; berebat, Udalak eta Begoñako Ama Egoitzak, hurrenez hurren, 971 eta 420 mila euroren gastua egikaritu dute, publikotasunik eman gabe eta lehia bideratu gabe).